

Martin Berasategi sukaldariarekin aritu gara solasean

Lasarte-Oriako bere jate-txean topatu dugu Martin. Marbellatik etorri berria zen eta maletak prest zituen hurrengo egunean Moskura irteteko. Beti badu zerbeit, baina horrek pozik sentiarazten du. /4-5



Saharako bost haur gure artean igaroko dituzte oporrak

Lasarte-Oriako Udalak haur saharuiarrei ongietorria eman zien

Maelaeinin Ahmed Salem, Dahalama Abdelkader, Umujutha Chej Hasana, Brahim Salem Gouz Embarek, Dalahi Hamma Mohamed, Salma Mehdjoub Nafa, Jadiyaheta Salama Omar, eta Abdel Wuadu Mohamed San Joanetarako iritsi eta abuztua bukaeran bueltatuko dira kanpamenduetara. Bost Lasarte-Orian, 2 Andoainen eta bat Usurbilen izango dira.

Udaleko ordezkariak ongietorria eman eta eskolarako materialaz betetako poltsa bana eman zieten. Neska bat falta da argazkian, izan ere, azterketa medikua egiteko ordua baitzuen. Saharako udako beroaz ihesi eta azterketa medikuak egitera etorzen dira, batez ere. •



Udaleko ordezkariak ongietorria egin zien Saharako haurrei eta hauen harrera familiei ostegunean.

Sukaldaritza Arrieskaltan

Arrieskaltan elkartean duela sei hilabete helduei zuzendutako sukaldaritza ikastaroa egin zuten eta San Pedro jaien aurretik haurrentzako ikastaroa egin dute. Dozena bat haur harrapatu genituen elkarteko sukaldean flana egiten eta ondoren lentejak prestatu zituzten. Inaki Izquierdok sukaldean moldatzeko triki-mailu batzuk erakutsi die eta Maider Rekondok, sukaldari txapela buruan duela, "janaria prestatzea erraza da, baina errazagoa jatea" dela esan digu. Maiderrek aitortu digu arroza kubatarra egin zutenean, arroza pasa egin zitzaizela eta gainontzeko gauzak berriz, goxoak zeudela. •



GIZARTEA | 3

Kultur eta hezkuntza arloko udal politika kritikatu dute ezker abertzalekoek

KIROLA | 6

Lasarteoriatarrek emaitza onak lortu dituzte Azeri Krosean

KIROLA | 6

Asteburuan jokatu da Nazioarteko Hipika



**ELEKTRIZITATEA
ARREGUI**

**Material elektrikoak
Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak**

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



**BELARTZA
JATETXEA
TABERNA**

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Larunbata gaua
eta igandea
ixtita!

Belartza poligonoa
Gurutzezi kalea 15, 4A Pabilioia
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

Euskaltegian aritu direnei udan euskara erabiltzeko garaia iritsi zaie

Udal euskaltegiak eta Muntteri AEK euskaltegiak ikasturteari amaiera eman diote. Liburuak itxi, azterketen emaitzak jaso, ikasturteko kideak agurtu eta udaz gozatzeko eta euskara euskaltegitik at erabiltzeko

garaia iritsi da. Udal Euskaltegiko irakasleak, Rufino Iraolak, ikasturteko emaitzak eskaini dizkigu eta Muntteriko Olatz Urdanpilletak udan euskara erabiltzeko gonbitea luzatu digu.

Udal Euskaltegiak oso emaitzak onak izan ditu

Amaitu da 2007-2008 ikasturtea. Balantzea egiteko garaian gaude, eta esan genezake oso positiboa izan dela. Oraingoz, idatzizkoaren emaitzak dauzkagu, eta hauek dira: 1. maila (Europako markoan: B1). 19 ikasle aurkeztu dira maila honetara, eta 17k gainditu dute, hau da, %89,47. 2. maila (Europako markoan: B2). 20 ikasle aurkeztu dira, eta 14k gainditu duten, %70ek. Azkenik, 3 mailara (Europako C1) 10 ikasle aurkeztu dira, eta 7k gainditu dute, hau da, %70ek. Ikasle guztiak, nola maila batekoek hala bestekoek, Donostian egin dute azterketa.

Datuak erreferentziaren baten argitan ipini behar dira, ondo ulertzekotan. Horretarako, iazko ida-

tzizkoan euskaltegietan izandako emaitza orokorrak hartu ditugu, aurtengo gureak alderatzeko: 73,44 gainditu zuen lehenengo maila; bigarren maila, %63k; eta EGA % 48,13k. Berez gu, aurtengo emaitzetan, euskaltegien iazko media horretatik gora gabiltza: 16,07 puntu lehenengo mailan; bigarrenean, 7 puntu; eta hirugarrenean, 21,87.

Lehenengo mailan, baliokide gisa, hauek sartzen dira: IVAPEeko HE1; Osakidedatzo HE1, etab. Bigarren mailan sartzen dira: IVAPEko HE2, Hezkuntzako HE1, etab. Azkenik, 3. mailaren baliokideak dira, besteak beste, hauek dira: IVAPEko HE3, Hezkuntzako HE2, EGA, etab. •

Muntteri AEK euskaltegiaren atsedena

Iritsi da uda jada eta honek berarekin ekarri digu kurtso amaiera. Euskaltegia hustu zaigu eta gelak isildu dira, atsedenean dago euskaltegia.

Aldi berean, hemen gelditu dira aditza, deklinabidea, irakurketa eta horrelakoen arrastoak; jolas, joko eta elkarriketen doina ere horretan itsatsi dira.

Era berean, azterketen urduritasuna, ezinegona eta ahaleginen indarra ere senti daiteke oraindik ere, emaitzen poz, alaitasun eta itxaropenarekin batera.

Baina gauza guzti hauen gainetik, bertan bizitu dena gelditu da: ikasleen oihartzuna, hau da,

euskararen oihartzuna.

Orain, oporraldi eta atsedena garaia dugu eta honekin batera gure denboraz, lagunez eta familiariaz gozatzeko garaia. Ahalegin-du gaitzen hauek euskaraz egiten eta honela, irailan berriro ere elkartuko garenean, gure helburua betetzen ari garenean sentimendua izango dugu.

Bitartean, ondo pasa uda! •



Udal Euskaltegiko ikasleak papirofexiako tailerrean.



Muntteri-AEK-ko ikasleak barretterapiako tailerrean.

Zero Sette akordeoi orkestra Alemaniara hilabete amaieran

Zero Sette Orkestrak Alemaniara Straubinger hiriko Akordeoi Orkestraren 35. urteurrenean parte hartuko du. Hilabete bukaeran abiatuko dira herriko musikariak Alemania aldera, baina bidaiaren aurretik emandak eskaintzen jarraitzen dute. Asteburuan, Berrizeko jaietan jo du. Berrizen San Pedro eta Santa

Isabelak ospatzen dituzte, eta bertako Udalak Lasarte-Oriako orkestra gonbidatu du. Jende asko hurbildu zen Orkestrak San Joan elizako kontzertua ikustera.

Goikouriak zuzentzen duen orkestrak hamar lan aurkeztu zituen, besteak beste: Guridiren "De Ronda", "Amorosa" eta Jose Antonio Mercero lasarteoriata-

rraren "Pozik" (fandangoa) eta "Txori Saltaria" (arin-arina). Oraingoz ere, orkestrak Erketz E.D.T.-ko, Olatz Beguiristain eta David Egizabal dantzarien laguntza izan zuen.

Kontzertua amaituta eta ikusleek eskatuta, Zero Setteko musikariak, "Brasilia" interpretatu zuten.



Kultur eta hezkuntza arloko udal politika kritikatu dute ezker abertzaleko kideek

■ Kultura batzordean ez dagoela eztabaidarik eta bere zeregina diru-laguntzak banatzera mugatzen dela diote. Gainera banaketa sistema ez dela bidezkoa uste dute zinegotziek.

TXINTXARRI

Kultura batzordearen funtzionamendua ez dela egokia eta bere zeregina diru-laguntzak banatzera mugatzen dela salatu du ezker abertzaleak. Gainera herriko taldeen artean laguntzak ez direla berdin banatzen, banaketa sistema ez dela zuzena, uste dute ezker abertzaleko zinegotziek. Azkenik, ikastetxeetan dauden arazo eta ausiei erantzuteko Eskola Kontseilua lehen bait lehen sortzeko eskatzen diote Udalarari.

Kultura batzordearen bilerekin aurten batzorde beste 20 minutuko iraupena izan dute eta soilik herriko taldeei zenbaterako diru laguntza eman aztertu da. Hori ere salatu dute ezker abertzaleko ordezkariak: gainera laguntzen banaketa ez dela zuzena, adierazi dute eta hala ere, egin dezaketena bakarrik batzorde-buru den Jone Altunaren proposamenak bozkatzea dela, gehienetan aurka noski. Beraz, Kultur talde guztiak laguntza irizpide berdinekin emateko eskatu eta batzorde-buruak duen jarrera salatu du Txanpi Baztarrika ezker abertzaleko ordezkariak: Jone Altunari parte hartzeko eta proposamenak egiteko borondatea jakinarazi diotenean hori bere ardura dela erantzun die, beste zinegotziei bere proposamenak bozkatzea besterik ez zaiela geratzen, alegia.

Ezker abertzaleko zinegotziek aurreko agerraldi publiko

batean salatu zuten Udaleko batzorde gehienetan ez dagoela eztabaidarik. Orain horren adibide argia den Kultura eta Hezkuntza batzordearen funtzionamendua salatu dute. Izan ere aurten egin diren batzarren batzorde besteko iraupena 20 minutukoa izan da, luzeena 31 minutukoa eta gai zerrendan herriko taldeei eman beharreko diru laguntzen proposamenak soilik izaten dira, inolako eztabaidarako aukerarik gabe bozkatzen eta onartzen direnak.

Gainera, zinegotziek salatu dutenez, banaketa egiteko modua ez da argi eta zuzena. Antzeko puntuazio duten bi talde alderatu ditu zinegotzi taldeak eta ehunetik 76 puntu dituen talde batek eskatutakoaren ehuneko 40 jaso duen bitartean 83, 7 puntu gehiago, dituen beste batek ehunetik ehuna jaso du.

Diru laguntzak emateko araudiaren hamargarren artikuluan esaten da, beti ere udalaren urteko aurrekontuen kopuruak gainditu gabe, gehienez, programaren aurrekontuaren ehuneko 30eko laguntza emango dela, udalak interes handikotzat jotzen dituen programen kasuan izan ezik. Eta hori salatzen dute zinegotzi abertzaleek, puntuazioa egitekoan eta egitasmo edo talde bat interes handiko gisa jotzerakoan erabiltzen diren irizpideak ez dira argiak eta parekoak. Banaketa ez da justua, ezker abertzalearen ustez, "irizpidea



Ezker Abertzaleko kideak prentsurrekoan.

Jone Altunarena da edo bere kasuan alkate anderearena".

Kasu konkretuak

Horrela, gertatzen diren zenbait gehiegikeria salatu dituzte. Txanpi Baztarrikak adierazi duenez, herriko talde batzuek urteko hitzarmenak sinatuta daukate, baina hala ere gero berriz dirulaguntza eskatu eta ehunetik ehuna jasotzen dute. Adibidez interes handikotzat daukaten talde horietako batek urte gutzirako 3.800 euro jaso eta gero beste 1.260 jaso ditu, eskatutako ehunetik ehun. Baina beste talde batzuekin ez dute horrelako begirunerik, esaterako 220 umeekin lanean diharduen kultur talde batek 3.200 eskatu eta 1.280 jaso ditu, folklore talde batek 5.500

eskatu eta 2.181 jaso, auzo elkarte batek 3.800 eskatu eta 1.131 jaso eta helduekin diharduen talde batek 3.100 eskatu eta 1.238 jaso.

Beraz talde batzuei eskatutakoaren parte bat soilik ematen zaiela salatu dute hain juxtu "azken sei hilabeteetan bi makro kontzertutan 42.000 euro gastatu direnean". Horregatik galdeztzen dute ezker abertzaleko kideek, ia ez den eraginkorra goa urte guztian lanean ari diren herriko taldeak laguntzea, baina denak berdín, dirutza kontzertuetan gastatu baino eta hori ez daudela kontzertuak antolatzearen aurka.

Bestalde, hezkuntza arloan azken bi urteotan herrian zenbait arazo izan direnez, Eskola Kontseilua lehen bait lehen

sortu dezala eta hezkuntza arloko auzi garrantzitsuak udal batzordean aztertzeko aukera eskaini dezala eskatzen dio ezker abertzaleak Udalarari. Esaterako Landaberri ikastolako matrikulazioa bere ahalmenaren gainetik da azken urteotan eta kanpoan geratzen direnen artean gehienak Sasoeta-Zumaburu ikastetxera eramatea erabaki dute delegaritzea eta ikastetxeek. Baina Udala ez zen bilera hartan izan eta zera galdetzen du Txanpi Baztarrikak, "ba al da Hezkuntza-Kultura batzordean ahalmenik edo gogorik eztabaida hauek aurrera eramateko?".

Lasarteoriarrak Expoan

Lasarte-Oriako Zentro Zibikoko 52 emakume Zaragozako EXPO gunearan inaugurazioan izan ziren. Bidaia Udaleko Gizarte Zerbitzuetak sailak eta Zentro Zibikoak antolatuta zuten, eta emakume taldearekin batera bidaiatu zuten Gazteria eta Festetako zinegotziak, Jesús María Zaballosek, eta Zentro Zibikoko arduraduna den Maite Iglesiasek.

Hiru egunetan zehar EXPOko pabilioiak ikusteko aukera izan zuten. Antolatutako talde bezala bisita egiten zuten lehenengoak ziren eta Zaragozako pabilioan Ingu-rumeneko zinegotziak, Dolores Camposek, eta

Azpiegituretakoak, Luis Alberto Lagunak, egin zieten harre-ra. Zaragoza hiria eta El Pilar bisitatzeko aukera ere izan zuten.

Expora joateko aukera 19an

María Auxiliadora elkarteak Expora irteera bat antolatu du uztailaren 19rako. Autobusa goizeko 6:30k aldera abiatuko da Kotxerasetik eta herriko autobus parada desberdinetan geldaldiak egingo ditu. Expora bisitatu nahi duenak ondorengo telefono zenbakian eman behar du izena: 943-362496 (Isabel) edo 943-360042 (María Isabel). •



Expoaren inauguraziora joandako Zentro Zibikoko emakume taldea.

Bolo eta toka tiradak

XIX. Iturbe Memoriala izan zela eta, ekainaren 29an urteroko toka eta bolo tiradak ospatu ziren. Jende asko gerturatu zen ikusle moduan eta giro polita sortu zen. Boloetako tiradan probintziako sailkapenean M.Burugain izan zen irabazlea 36 brila botata, bigarren postua M. Arrozpiderentzat izan zen 35 brilarekin eta hirugarrena herriko J.Lasarentzat 34 brila bota eta gero. Herriko sailkapenean J. Lasa izan zen txapelduna, I.Salsamendi bigarren 33 brila botata, J.L. Lozano 32rekin eta J.A.

Arrojo 29rekin.

Tokako txapelketan E. Alvarez izan zen garailea probintziako sailkapenean 21 fitxarekin, herriko sailkapenean lehenengo postua J.Fernandezek eskuratu zuen 12 fitxarekin, J.A. Montesek bigarrena 9rekin, A.Ruben 8 fitxa eta hirugarren eta laugarren postua I.Salsamendiarentzat 8 fitxarekin.

Haurrentzako tiradak ere antolatu zituzten uztailearen 1ean, sariak Michelinek jarri zituen goxoki poltsak izan ziren eta eskerrak eman nahi dizkiote antolatzaileek. •



Iurbetarrak saridun guztiek XIX. Memorialean.

Hipika jokatu da asteburuan Hipodromoan



Nazioarteko Hipika Txapelketa ospatu da hipodromoan, ostiralean hasi eta atzo amaitu zen. Bertan hamasei herrialdeetako 190 zaldik eta 75 zaldizkoek hartu dute parte. Herrialde horiek Alemania, Argentina, Espainia, Txile, Arabiar Emirerriak, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Britainia Handia, Grezia, Holanda, Irlanda,

Italia, Lichestein, Mexiko, Suitza izan dira. Hainbat lehiaketa jokatu dira asteburuan, horietan garrantzitsuenetakoa Donostiako Udaleko Sari Nagusia. Bertan garaile suertatu zelarik Rey Z zaldia, Ricardo Kierkegard zaldunarekin. Bere atzetik, Valentino zaldia eta hirugarren Ismailia de Lormette. •

Plater tiraketa

Ekainaren 22an Buruntz-Azpi elkarteak Sporting Kompac txapelketa ospatu zuen Arkaletan. Hamasei eskopetek hartu zuten parte. Txapelduna Jesus "Nafer" izan zen 25etik 21 platerekin, bigarren postua Martxelok eskuratu zuen 20 platerekin eta hirugarrena Imanol Esnaolak 19rekin.

Kurtsu bukaera Zentro Zibikoan

Kurtsu bukaera ospatzeko eta datorren kurtsora arte agurtzeko merienda egin zuten joan den ostegun arratsaldean. Uztailearen 2an, azaleko minbiziaren prebentzioaren inguruko hitzaldi bat antolatu zuten. Euskadiko Minbiziaren aurkako elkarteak lehendakariaren, Fernando Pesqueraren laguntzarekin Donostiako ospitaleko dermatologoa den Patricia Eguino egon zen zentroan. Minbiziaren prebentzioan zein neurri hartu behar diren azaldu ziren bertara gerturatu ziren 20 bat emakumeei eta arreta handiarekin entzun zituzten honek emandako aholkuak. Beste alde batetik aipatu uztailearen 4a arte emakumeek zentroan egin dituzten lanak ikusgai egon direla nahi zutenak ikusi ahal izateko.

Lasarteoriatarrek emaitza onak Azeri krozean

Irabazlea David Martin Blazquez eta bigarren postua Endika Gartziaarentzat

Hernaniko San Joanetan ospatutako herri krozean lasarteoriatar askok hartu zuten parte, horien artean irabazle suertatu zen David Martin Blazquez korrikalaria. 29:22:03ko markarekin helmugara iritsi zen lehena izan zen, bigarren postua ere lasarteoriatar batek eskuratu zuen, Endika Gartzia 30:21:50ko denborarekin.

Herritar ugari

Hala ere gehiago izan ziren herriko parte hartzaileak Pili Bodegas, Andoni Illarramendi, Rafael Ruiz, Juan Maria Marcos, Leonardo Caballero, Toño Perez, Eduardo Ormazabal, Joxe Goikoetxea, Xabier Prada, Teresa de Celis eta Juan Maria Gastesi. Orokorrean parte hartze handia lasarteoriatarren aldetik eta baita emaitza onak ere. •



Irudian David Martin kroza amaitu eta gero.

Karmengo Amaren eguna Orian

Uztailearen 16an ospatuko den Karmengo Amaren egunerako prestatzen ari dira dagoeneko Oriatarrak. Egur-diko 12etan meza egingo da Juan Luis Muruak zuzenduta eta Ramon Uribetxeberriaren laguntzarekin. Karmengo Amaren kaperan izango da eta abestietan Pilar Catalina sopranoak eta Amaia Dorronsoro pianojoleak hartuko dute parte. Lehenago, goizean zehar, Solano Musika eskolako trititilariak arituko dira herriko kaleetatik musikarekin batera paseoa eta ondorengo mezara gerturatuko direnak jasoko dituzte kaperako aterpeetan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

EVA LIZARRAGA margolariaren lanak egongo dira ikusgai hila-bete osoan Jalgin kafe-antzo-kian, egun osoan.



Ostirala, 11

Musika

DJUM DJUM AFRICA (Afrikar musika). Perkusio afrikarra, saxoa, kitarra, etab. Jalgi kafe-antzo-kian, 22:30ean.



Zinea kalean

THE DARJEELING LIMITED izango da Okendoko frontoian ikusi ahal izango den azken filma. Pelikula honetan urte bete elkarri hitza zuzendu gabe egon ondoren, hiru anai amerikarrek, Indiatik zehar tren bidai bat hasten dute, beraien harremana indartu eta erlazioa berreskuratzeko. Baina "bidai espirituala" laster bertan behera geldituko da...

UZTAILAREN 17AN
22:30ETAN
OKENDOKO FRONTOIAN

Larunbata, 19

Musika

BREAKDANCE Saioa (Zarautzetik). Funk eta Hip Hop musikarekin. Jalgi kafe-antzo-kian, 22:30ean.



Igandea, 20

Azoka

SANTA ANAKO XXV. ARTISAU AZOKA. Okendo plazan Sendoki taldearen eskutik, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Osteguna, 24

Jaialdia

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIAN aurten ere hainbat herrialdetako taldeak etorriko dira ikusleen gozamenerako. Manuel Lekuona kulturetxean, iluntzean.

Eskutitzak

Ostadarren 25. urteurrena dela eta

Ostadar K.Fri Zorionak bere 25. urteurrenarengatik eta gutun honen bidez Lasarte-Oriako areto futbol-leko ligako finalean, Jose Carlos Palomaresi merezimendu osoz egindako omenaldiagatik eskerrak eman nahi dizkiogu; gainera finala irabazi egin genuen. Axola ez badizue omenaldira atxikitu nahiko genuke Jose Carlosen jokalarri figura azpimarratuz, Etxarri Michelinek entrenatzaile zegoen garaikoa; Jose Carlos Eibarrera eramateko saiakera ere egin zuen. Honetaz gain eta gure ekipoaren joko ona nabarmentzeaz gain, entrenatzailearen pertsonalitatea azpimarratu nahiko genuke bere bihotz ona eta indarrarekin. Guzti honi esker gure ekipoa final askotara iritsi da eta trofeo asko irabazi ditu.

Aurrera, Buenetxea txapeldun eta Palomo onena!

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Buenetxea taberna

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Lasartearra elkartearen irteera

Lasartearra elkartea, urtero moduan, irteera antolatu du datorren uztailaren 31rako, San Inazio egunerako. Aurtur Oliteko Ochoa bodegetara egingo dute irteera eta herrian bertan dagoen jate-txe batean bazkalduko dute. Parte hartu nahi duenak elkartetik pasa eta izen eman besterik ez du uztailearen 25a arte.

Irteera Lurdesera

Biyak-Bat elkartea, urtero bezala, Lurdesera irteera antolatu du uztailearen 10erako. Ostegun goizean, 8:30etan Zaharren Etxetik abiatuko da autobusa. L'Ardiden jatetxean bazkaldu ostean, On Ramon apaizak meza emango du San Gabriel kapera, arratsaldekoko 16:00etan. Izena emateko azken eguna bihar da, uztaialk 8. Beraz, interesa

duenak zaharren egoitzako bulegoan eman behar du izena 10:30etatik 12:30ak bitartean.

Udal kiroldegiko bazkideak

Udalaren kirol instalazioak uztailetik abendura erabiltzeko asmoa duenak, urte erdiko abonoa egiteko epea irekita dagoela jakinarazi dute kiroldegitik. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzuetako bulegoetara jo daiteke (943.376182).

Kiroldegiko udako ordutegia

Udako ordutegia martxan dago kirol instalazioetan, bai Kiroldegian, bai Kiroldegian, astelehene-tik ostiralera 7:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara. Igan-

detan itxi egingo dute. Bestetik, kiroldegitik erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako igerilekua uztailearen 25an eta 31ean, goizez, zabalik egongo dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunea: Astelehene-tik ostiralera 10etatik 12'30etara eta 17etatik 21etara, larunbatetan 9etatik 13etara, igandetan itxita.

Amaitzeko, Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzaz diegu: Abonuak Buruntzaldeko edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela (gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuz

Kiroldegia bi astez itxita
Lasarte-Oriako Udalaren

Kirol-Instalazioak abuztuaren 3tik 17ra bitartean (bi egunak barne), itxita egongo dira, instalazioen mantentimendua eta garbiketa egiteko, izan ere, instalazioak martxan dauden bitartean eginkizun horiek ezin dira egin. Bestetik, Michelingo kirol gunea uztailearen 31an itxita egongo da. Kiroldegiko ordezkariek jakinarazi dute, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalazioak hauek erabiltzeko aukera izango dutela: Urnieta (telf. 943-008328) eta Hernani (telf. 943-552185).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Parodiako aktore eta parte-hartzaileei deialdia

Dagoeneko antolatzaileak buru-belarri dabilta Sana Anako parodiaren antolaketa eta deialdia luzatu nahi diete bertan parte hartu nahi duten herritar guztiei. Interesa dutenek deitu dezatela 943 371448 telefonora edo Ttakunetik pasa daitezela. Animatu ondo pasatzera!

Energia berriztagarriak

- Aukera zabala dago alternatiba moduan, energia iturri konbentzionalak ez dira bakarrak
- Bi eguzki energia mota daude, bat elektrizitatea lortzeko eta beroa eskuratzeko

HELENA FERRERAS

Bikote Solar energia berriztagarrien inguruan lan egiten duen Barakaldoko enpresa da. Bertako Unai Villena izan genuen Kulturetxean ohiko energia iturri konbentzionalak alternatiba badutela azaltzen. Jende asko gerturatu zen informazioa jasotzera horren isla hitzaldian zehar suertatu zien galdera mordoa. Gaur egun gehien erabiltzen diren energia iturri konbentzionalak badute alternatibarik eta asko gainera. Batzuk oraindik garatzen ari dira baina besteek primeran funtzionatzen dute eguneroko bizitzan erabili ahal izateko.

Energia iturri konbentzionalak erregai fosilak eta energia nuklearra dira, zentral termiko eta nuklearretatik eskuratu ditugu, baina energia iturri hauek erabiltzeak ingurugiroko eragin kaltegarriak ditu. Eskala lokalean, zentralak dauden toki berean edo erregaia ateratzen den tokietan, gainera erregai fosilak erretzean gasak eta partikula kontaminatzaileak igortzen dira atmosferara, hondakin erradiaktiboak sortzen dira oso arriskutsuak direnak eta ur eta lurra kutsatzen dira. Maila globalean, azufreak sortzen duen euri azidoa da landare eta animalientzat kaltegarria dena, baita lurraren berotzea CO₂aren eraginez eta aldaketa klimatikoa.

Zertan kontsumitzen dugu energia?

Energia, elektrizitatea eta beroa sortzeko eta garraioen-

tzako erregaia ekoizteko erabiltzen da

%45a industriak erabiltzen du, %33a garraioan, %10a etxeetan eta gainontzekoa zerbitzuetan. Azken urteetan energiaren eskaria igotzen ari da eta baina iturri konbentzionalak agortu egiten dira, adituek diote petroleo agortuko dela. Geroz eta gehiago behar da eta geroz eta gutxiago dago beraz energiaren krisi bat iritsi daiteke. Horren aurrean konponbidea edo neurriak lirtaetke alde batetik petroleo eta bertatik erortritakoekiko dugun dependentsia murriztea, bestetik aurrezte eta honek ez luke eraginik bizi kalitatearekin, eta azkenik energia berriztagarrien erabilera eta garapena

Energia berriztagarriak

Etengabe produzitzen dira eta agortezinak dira. Beroa produzitzeko eguzki energia termikoa, energia geotermikoa, edo biomasaren energia erabili ditzakegu. Elektrizitatea eskuratzeko energia eolikoa, fotoboltaikoa, termoelektrikoa, geotermikoa, biomasaren energia, olatuena eta mareena da baliagarria eta garraiorako erregaia ordezkatzeko bioerregaia.

Eguzki energia termikoa

Eguzki energia termikoa ari garenean gehienetan burura etortzen zaiguna elektrizitatea sortzeko erabiltzen diren panelak izaten dira, baina bi mota daude, bata eguzki energia fotoboltaikoa eta bestea eguzki energia termi-



Unai Villena, kulturetxean emandako hitzaldian ekainaren 26an.

koa beroa sortzeko erabiltzen dena. Zuzenean aprobetxatu daiteke eguzkiak ematen duen beroa likidoak edo jakiak berotzeko. Gainera hainbeste berotu daiteke ura hortik lurrunarekin zentral termikoetan egiten den gauza bera egin daitekeela, hau da, ur berotik ateratzen den lurrina turbina bati eragiteko aprobetxatu.

Bi panel mota daude beraz elektrizitatea egitekoak eta beroa gordetzen dutenak.

Eguzki Energia fotoboltaikoan efektu fotoboltaikoaren

bid ez elektrizitatea sortzen da. Sarean konektatua egongo ginateke, hau da, jasotzen dugun elektrizitatea ohiak sarean sartzen da eta konpainia elektrikoari saltzen zaio. Guk erosten

duguna baino garestiago erosi behar dute beraiek, horrela instalazioa jartzeak kostatu duena pagatzeko erabiliko dugu dirua eta ondoren diru sarrera bat izango da. Bi kontadore edukiko genituzke kasu horretan, bata betikoa eta bestea guk sarean sartzen duguna kontatzen duena.

Biomasaren energia.

Materia organiko multzoa da, naturala, animaliena, landarena edo gizakiak eragindakoak, hau da, lurretik datorren guztia da biomasa. CO₂aren balantze neutroa dauka, erretzean botatzen den CO₂a landareak xurgatu duen kantitate bera da horregatik da ekologikoa eta berriztagarria da landareak, adibidez berriro landatu daitezkeelako.

Energia eolikoa

Airetik hartzen dugun energia da, askotan ikusi ditugu errotak eta ezaguna da energia mota hau. Errotak buelta ematen du eta horrek eragile bat mugiarazten du, gero elektrizitatea kable bidez garraiatzen da. Horrelakoak itsasoan jartzeko proiektuak garatzen ari dira orain, zailagoa da baina ez ditugu hainbeste ikusten beraz kalte gutxiago egiten dute.

Energia geotermikoa

Lurretik hartzen den beroa da. Lur barnean zenbat eta hondorago joan tenperatura geroz eta beroagoa da eta horko energia aprobetxatzean datza energia geotermikoa. Zulo handiak egiten dira lurraen bertan ura sartzen da eta ur hori beroagatik lurrin bihurtzean turbina bati eragiten dio berriro ere. Honetarako egin beharreko lanak handiak dira zulo handiak egin behar direlako, hala ere lurra tenperatura desberdina dauka planetako toki ezberdinetan horregatik toki batzuetan ez dira oso zulo handiak behar.

Hidraulikoa, itsasoko olatu eta mareak.

Olatuen energial itsasoko olatuen joan etorriak aprobetxatzean datza. Dike bat eraikitzen da eta bertan zulo bat ura sartu dadin, zuloan airea dago eta olatua datorrenean airea bultzatzen du horrela bertan jarritako turbinak giratu egiten du eta energia sortzen da. Ura ateratzean gauza bera baina alderantziz gertatzen da eta turbinak beste aldera biratzen du. Horrela olatua etorri eta joaten denean ere aprobetxatzen da bere indarra. •

